



HIRUGARREN ADINEKOEN EGOITZAK: 125 AZTERTU DITUGU, PUBLIKO, PRIVATU ETA ITUNDUAK, ESPAINIAKO 18 PROBINTZIATAN

HAMAR EGOITZATATIK ZAZPITAN, ITXAROTE ZERRENDAK DAUZKATE ETA % 21K KALITATE GABEZIA NABARMENAK DITUZTE. PREZIOAK IGO EGIN DIRA, EGOITZA PUBLIKOETAN BATIK BAT, NAHIZ ETA MERKEAGOAK ETA HOBEAK IZATEN JARRAITZEN DUTEN

Gero eta garestiagoak dira baina eskaintzen dituzten lekuekin ez da asetzen gizartearen eskaera

G

ero eta luzaroago bizi gara, eta, ondorioz, gero eta jende gehiagok bizi behar izaten du hirugarren adinekoen egoitzetan (egun, 65 urtetik gorakoak dira herritarren % 17 Espainian, eta bi hamarkadaren buruan, % 25 izango dira). Eskaria gora eta gora doa. Eskaintza ere handitu da azken lau urteetan, baina ez nahi duten guztiek toki bat izateko adina: 100 biztanle bakoitzeko, 3,5 toki zeuden orain lau urte, eta 4,14 toki daude gaur egun (80 urtetik gorakoentzat, 14 toki izatetik, 16 toki izatera pasatu dira 100 biztanle bakoitzeko). Eskaintza-eskariaren arteko desoreka dela eta, hamar egoitzatetik zazpi itxarrote zerrendak dituzte. 2005. urtetik hona, prezioak % 8 igo dira, oro har, eta KPI metatua, berriz, % 9,4. Egoitza publikoen tarifak, hala ere, % 23 igo dira batez beste, baina oraindik ere pribatuak baino merkeagoak izaten jarraitzen dute. Duela lau urte, esaterako, hilean 775 euro ordaintzen zuen egoiliar batek gela beste norbaitekin erdibana egiteagatik, eta orain, berriz, 1.021 euro ordaindu behar ditu. Igoera handia, kontun izanik pentsioak % 19 igo direla lau urtetan, eta erretiratu batek hilean 821,55 euro jasotzen dituela, batez beste (2008ko abenduko datua). Duela lau urte ere antzeko azterketa bat egin zuen CONSUMER EROSKI-k, eta orduko hartan, egoitzen % 14k ez zuten gainditu gure proba. Aurten, berriz, % 3 geratu dira gutxieneko mailatik behera. Gabeziak, hala ere, ez dira desagertu: hiru egoitzatetik bik ez dute eduki larrialdi txirrinik bainugeletan, % 20k ez dute eskaintzen fisioterapia eta errehabilitazio zerbitzurik, eta erdietan baino gehiagotan, azken urtean ez dute egin larrialdia itxuratzeko saiurik. Egoitza publiko eta itunduek emaitza hobekia lortu dituzte, orohar.

Ondorio horiek atera ditu CONSUMER EROSKI-k 125 egoitza publiko, pribatu eta itundu aztertu ondoren, honako 18 probintzian, hain zuzen: A Coruña, Araba, Alacant, Asturias, Madril, Bartzelona, Bizkaia, Burgos, Cadiz, Granada, Gipuzkoa, Malaga, Murtzia, Nafarroa, Sevilla, Valentzia, Valladolid eta Zaragoza. Orain lau urte erabili genuen metodologia erabili dugu orain ere: telefonoz deitu dugu egoitza bakoitzera eta teknikariak egoitzetara bertara ere joan dira, haietan izena eman nahiko balute bezala. Bisita horiekin, jakin nahi izan dugu zer-nolako arreta eskaintzen dieten egoiliarrei, zer azpiegitura eta zerbitzu dituzten, adineko zenbat pertsonaren ardura izaten duen zaintzaile bakoitzak, zenbateko intimitatea duten egoiliarrek eta zenbateraino sentitzen diren etxean bezala, nolako mediku-arreta ematen dieten, garbitasuna, segurtasuna eta irispideak nolakoak diren, eta, jakina, zer prezio duten. Guk aztertu ditugun egoitzek, batez beste, emaitza 'ona' lortu dute, orain lau urte bezala, eta orduan gertatu zen moduan, egoitza publikoak gailendu egin zaizkie pribatuei eta itunduei (merkeagoak ere badira, gainera): publikoek 7,3 puntu bildu dituzte, batez beste, eta guztiek gainditu dute azterketa; pribatuek 6,7 puntu atera dituzte eta 7,2 itunduek, eta % 4 geratu dira proba gainditu gabe.

PREZIOAK EUROTAN: EGOILIAR MOTAREN ETA GELA MOTAREN ARABERA (egoitza publikoak eta pribatuak)						
Egoiliar mota era gela mota	Batez beste 2009	Batez beste 2005	Egoitza publikoa (2009)	Egoitza publikoa (2005)	Egoitza pribatua (2009)	Egoitza pribatua (2005)
Egoiliar lagundua* batentzako gelan	1.556	1.437	1.336	1.095	1.733	1.600
Egoiliar lagundua birentzako gelan	1.459	1.255	1.301	1.058	1.458	1.393
Lagundu beharrik ez duen egoiliarra* batentzako gelan	1.247	1.203	1.039	897	1.431	1.271
Lagundu beharrik ez duen egoiliarra birentzako gelan	1.160	1.115	1.021	775	1.359	1.100
BATEZ-BESTEKOAK	1.356	1.252	1.174	956	1.495	1.341

*Egoiliar lagundua: Bere kabuz moldatu ezin den egoiliarra, laguntza behar duena eguneroko zereginak egiteko. *Lagundu beharrik ez duen egoiliarra: Bere kabuz moldatzen den pertsona. Bainugela osatua daukate gela guztiak.


EGOITZAK ONGI HORNITUTA DAUDE

Aztertu ditugun 125 egoitzen erdiak baino gehiago, % 57, pribatuak izan dira, % 23 publikoak eta gainerako % 20ak itunduak (Administrazioarekin ituntzen dute euren eskaintza). Egoitza-zerbitzu finko eta iraunkorra daukate guztiek, baina % 56k aldi baterako tokiak ere eskaintzen dituzte; beste % 34k eguneko zentroen zerbitzuak ere badituzte, eta % 5 prestatuak daude etxebizitza komunitario ere izateko. Ohikoena izaten da egoitza horiek bi motatako gelak izatea, bantentzat direnak eta birentzat direnak (azken horiek oso egokiak dira bikote diren egoiliarrentzat, eta, gainera, besteak baino merkeagoak dira). Guk, hala ere, aurkitu ditugu hirurentzako gelak eskaintzen dituzten egoitzak (23), eta lau oheko gelekin ere bai batzuk (7). Zerbitzuen eta azpiegituren atalean, oro har, emaitza 'ona', lortu dute guk aztertu ditugun egoitzek, baina Arabakoak, Bizkaikoak eta Nafarroakoak nabarmendu dira atal horretan (emaitza 'oso ona', batez beste). Asturiaskoek, aldiz, ez dute gainditu azterketa ('halaholako' emaitza izan dute), eta Cadizkoek eta Zaragozakoek soilik lortu dute 2005. urtean baino emaitza txarragoa.

Egoitzak bikain zainduta egon dira, oro har (% 12k berriro batzuk behar dituzte), eta gelak ongi hornituta daude (berogailua dute, armairuak, gau mahaiak...); aire girotua, telefonoa edo telebista, aldiz, egoitza bakan batzuetan soilik ikusi ditugu (nork bere eraman dezake, nahi badu). Lau egoitzatetik hiruk bainugela dute gelan, baina larrialdi txirrinik gabe (gelarik gehienek badute txirrina, % 96k, baina bainugeletan % 78ak bakarrik ditu). Egoitzarik gehienek, halaber, botika-zerbitzua eskaintzen dute, eta beste zenbait zerbitzu ere bai: jarduera soziokulturalen programak, irakurketa gelak, jantokiak eta ile-apaindegia (hori ez da sartzen hileko kuotan). Beste zerbitzu batzuk, ordea, ez daude hain hedatuak, eta komeni litzateke egoitza guztiek halakoak edukitzea, hobetu egingo bailukete egoiliarren bizi-kalitatea. Honako hauek, adibidez: gimnasioak (egoitzen % 35ek soilik dituzte), Internetera konektatzeko ordenagailu-gelak (% 16k baino ez dituzte) edo lege laguntzako zerbitzuak (hamarretatik lauk eskaintzen dute).

GARBITASUNA ETA IRISPIDEAK

Oro har, garbitasunaren atala egoki zaintzen dute egoitzek, nahiz eta zenbait lorategi, adibidez, utzi samarrak daudela iruditu zaigun. Horrez gain, jendea biltzeko areto batzuk txikiegiak iruditu zaizkigu, eta logela batzuk ere ezin jo guztiz egokitzat, txikiak eta argi gutxikoak baitira. Cadizek ez du gainditu atal hau, eta emaitzarik onena, berriz ere, Arabak lortu du ('oso ona', Nafarroak eta Granadak bezala). Iripideen atalean ere emaitza onak atera dituzte egoitzek. Bereziki zaindu beharreko gaia da hori adin handiko jendea bi-



zi behar duen lekuetan, baina egoitza guztiek ez diote eskaintzen arreta bera. Cadizek eta Malagak, esaterako, ez dute gaintu azterketa. Ia egoitza gehienek dauzkate aldapatxoak edo igogailuak solairu betetik bestera joateko (Madrilen, hala ere, eskailerak soilik dauzkate hiruk), eta bainugelek eta logelek ere irispide onak dituzte (zoru berezia, inor ez irristatzeko, dutxaplatforma heldulekudunak, albo euskarriak dituzten komunak, ate eta gela zabalak, helduleku eta guzti...). Gabezia batzuk ere aurkitu ditugu, hala ere: kartel gutxi ikusi ditugu braillez idatziak (Arabako lau egoitzatan eta A Coruña, Bizkaiko, Madrilgo eta Nafarroako beste bostetan soilik). Pertsiana automatikoak ere eskas dauzkate egoitzek.

SEGURTASUNA ETA MANTENUA

Elikaturaren atala ere oso garrantzitsua da, funtsezkoa baita adineko pertsonen bizi-kalitate ona eta ongizate egokia edukitzeko. Egoitzen % 90etan, han bertan prestatzen dituzte menuak (gainerakoek catering enpresak kontratatzen dituzte), eta % 96k egokitu egiten dituzte egoiliarren osasun beharretara. Otorduen ostean paseotxo bat ematea ona izan ohi da digestioa egiteko, eta lau egoitzatetik hiruk badituzte paseatzeko eremuak; % 20k, aldiz, ez daukate inolako terrazarik edo eremua asfaltaturik. Egoitzatik kanpora irten eta norabait joan nahi dutenek, batez beste, 15 minutuko bidea dute oinez garraio publikoko geltokiren batera.

Segurtasunaren atalak emaitza apartak eman ditu, bereziki nabarmentzeko modukoak. Batez beste, emaitza 'oso ona' lortu dute egoitzek (batez besteko orokorren ginetik, beraz), eta are hobea, 'bikaina', Arabak, Alacantek, Gipuzkoak eta Murziak. Egoitzarik gehienek (% 92k), su-itxalgailuak eduki dituzte, larrialdiko argiak eta irteerak, alarma sistemak, suaren aurkako atek, eta larrialdi plan onartua ere eduki dute ia guztiek, salbu eta A Coruña, Madrilgo batek eta Valladolideko batek; egoitzako langileek, gainera, derrigor jakin behar dute plan hori zein den eta nola aplikatu behar duten. Segurtasun-gabezia nabarmen samar bat antzeman dugu, hala ere: erdiek baino gutxiagok eduki dute egina sute bat itxuratzeko saioa aurreko urtean.

ITXAROTE ZERRENDA

Guk aztertu ditugun 125 egoitzetan sartzeko zain, batez beste, 35 pertsona daude, eta % 30ek soilik daukate tokiak libre. Argi dago, beraz, beharra duten pertsona guztiek ez daukatela aukerarik egoitzetan osatu hartzeko, eta mantenu eta arreta beharrik asetzeko. Behin egoitzan sartzeari lortutakoan, hala ere, egoiliarrek ongi zainduta egoten dira, oro har, eta eurretako bakoitzaren beharrei erantzuten saiatzen dira arduradunak: arreta integralki ematen diete, eta, horretarako, langile prestatuak izaten dituzte, osasun langileak eta gizarte langileak, baita beste hainbat zerbitzu >



A CORUÑA

Aztertu ditugun egoitzak: 5 (2 publiko, 2 pribatu eta 1 itundua)
Emaitza: ONARGARRIA
+ Egoitza guztiek ematen dute aukera egoiliarrek irten daitezkeen, bisitak har ditzaten eta euren ondasunak eduki ditzaten. Lau egoitzak fisioterapia eta errehabilitazio zerbitzua eta podologia zerbitzua eduki dute.
- Egoitzetako batek ez du eduki ez ohe artikulaturik, ez bainugela geriatriko lagundurik. Hiruk ez dute eduki mediku kontsultarako gelarik.



BURGOS

Aztertu ditugun egoitzak: 5 (pribatuak)
Emaitza: ONARGARRIA
+ Egoitza guztiek ematen dute aukera geletan bisitak hartzeko, eta guztiek eduki dituzte segurtasun sistemak: larrialdiko argiak eta irteerak, eta su-itxalgailuak.
- Egoitza bakarrean egoten da medikua han une oroz, eta lau egoitzatan, gela berean daukate erizaindegia eta medikuarren kontsulta.



MURZIA

Aztertu ditugun egoitzak: 8 (3 pribatu eta 5 itundu)
Emaitza: OSO ONA
+ Egoitzarik gehienek lorategia daukate, eta guztiek daukate txirrinar logeletan. Bi egoitzak pneumologoa daukate eta zainketa trinkoetako espezialista bat.
- Egoitzen erdiek ez daukate txirrinar bainugeletan. Zortzi egoitzetatik hirutan, ez dago bisiten erregistroa egingo duen zerbitzurik.



ARABA

Aztertu ditugun egoitzak: 8 (5 publiko, 2 pribatu eta 1 itundua)
Emaitza: OSO ONA
+ Egoitza guztiek eduki dituzte dei-txirrinar geletan eta bainugeletan, eta larrialdiko argiak, su-itxalgailuak eta larrialdi irteerak ere eduki dituzte.
- Bi egoitzak ez dute eduki ezinduentzako gunerik aparkalekuan, eta beste bik ez dituzte egokituta eduki bisitek eta familiakoek erabili beharreko komunak.



CADIZ

Aztertu ditugun egoitzak: 4 (1 publiko, 1 pribatu eta 2 itundu)
Emaitza: HALA-HOLAKOA
+ Egoitza guztiek eduki dute larrialdi plana, eta erdiek egina zuten 2008. urtean sute bat itxuratzeko saioa.
- Egoitza baten kanpoaldea berri beharra dago, erdiek ez dute uzten gelan bisitak har-tzen eta batek ez dauka ezinduentzako irispiderik.



NAFARROA

Aztertu ditugun egoitzak: 6 (4 publiko eta 2 pribatu)
Emaitza: OSO ONA
+ Guztiek daukate ohe artikulaturak, eta guztiek ematen dute aukera egoiliar gaixoenkin gaua pasatzeko; egoitza batek braillez idatzitako kartelak ditu.
- Bi egoitzak ez daukate programa soziokulturalik, batek ez dauka bainugela geriatrikorik eta bostek ez dituzte beheko solairuan jartzen mugikortasun gutxien duten egoiliarrek.



ALACANT

Aztertu ditugun egoitzak: 6 (3 publiko, 2 pribatu eta 1 itundua)
Emaitza: ONA
+ Geletako bainugelek beharrezko irispide guztiak eduki dituzte. Egoitza guztiek egina zuten 2008. urtean sute bat itxuratzeko saioa.
- Medikuri ez da egoten une oroz egoitzetan, eta egoitza batek ez du eduki ohe artikulaturik.



GRANADA

Aztertu ditugun egoitzak: 4 (1 publiko, 3 pribatu)
Emaitza: ONA
+ Egoitzak oso ongi zainduta egon dira kanpoaldetik. Logelak eta bainugelak ere ongi zainduta egon dira, oro har.
- Egoitza guztiek daukate inguruan autobus geltoki bat, baina ez taxi geltokirik. Egoitza batean soilik egoten da jendea harrera gunean 24 orduz.



SEVILLA

Aztertu ditugun egoitzak: 7 (1 publiko, 4 pribatu eta 2 itundu)
Emaitza: ONARGARRIA
+ Lautatik hiruk podologia zerbitzua dute eta gehienek aldapatxoak eta igogailuak. Guztiek uzten dute nork bere ondasunak edukitzen.
- Tratamendu espezializatuko mediku-unitateak falta dira ia egoitzarik gehienetan, eta lautatik hiruk orotariko medikua soilik dute.



ASTURIAS

Aztertu ditugun egoitzak: 7 (1 publiko, 6 pribatu)
Emaitza: ONARGARRIA
+ Egoiliarra gaixo badago, zazpi egoitzetatik bostek aukera ematen diete familiakoei edozein ordutan egoteko euren senidearekin, bai egunez eta bai gauetz.
- Lau egoitzatan, bainugela osatuak falta izan dituzte eta jarduera soziokulturalen programak; egoitza batek ez dauka paseatzeko eremurik.



GIPUZKOA

Aztertu ditugun egoitzak: 8 (2 publiko, 1 pribatu eta 5 itundu)
Emaitza: ONA
+ Aldapatxoak eta/edo igogailuak dituzte egoitza guztiek; bisitan datozentzat komunak ere badituzte eta ezinduentzat egokitutako logelak ere bai. Bost egoitzatan geriatrak egoten dira une oroz.
- Zortitik seik ez dute onartzen adinekoak denbora baterako egon daitezkeen.



VALENTZIA

Aztertu ditugun egoitzak: 8 (1 publiko, 4 pribatu eta 3 itundu)
Emaitza: ONA
+ Egoitza guztiek ematen dute aukera bisitak logelan hartzeko, eta guztiek daukate ile-apaindegia zerbitzua.
- Ebakuntza osterako gelak falta dira egoitza guztietan, ia batek ere ez du espezialistak, eta erdiek ez daukate kaperarik edo erlijio zerbitzurik.



BARTZELONA

Aztertu ditugun egoitzak: 11 (4 publiko, 7 pribatu)
Emaitza: ONARGARRIA
+ Egoitza guztiek uzten diete egoiliarrei bisitak hartzen eta euren ondasunak edukitzen. Bederatzik eduki dituzte ohe artikulaturak, eta guzti-guztiek eduki dituzte bainugela geriatriko lagunduak.
- Lau egoitzaren kanpoaldeak 'hala-hola' zainduta egon dira, eta barrualdea ere bai beste hirutan.



MADRIL

Aztertu ditugun egoitzak: 11 (pribatuak)
Emaitza: ONA
+ Itxarote zerrendan dagoen jende kopurua (23, batez beste), gainerako probintzietakoa baino txikiagoa da (36, batez beste).
- Batek ez du eskaintzen menu berezirik medikuak aginduta ere. Beste batek ez du unitaterik tratamendu bereziak behar dituzten egoiliarrek hartzeko.



VALLADOLID

Aztertu ditugun egoitzak: 5 (2 publiko eta 3 pribatu)
Emaitza: ONARGARRIA
+ Ohe artikulaturak dituzte egoitza guztietan, baita podologia zerbitzua eta fisioterapia eta errehabilitazio zerbitzua ere.
- Hiruk ez daukate aldapatxorik sarreran, bik ez dute uzten nork bere ondasunak eduki ditzan, eta beste bik 2008an ez zuten egin sute bat itxuratzeko saiorik.



BIZKAIA

Aztertu ditugun egoitzak: 8 (4 pribatu eta 4 itundu)
Emaitza: OSO ONA
+ Erdietan baino gehiagotan, kanpoko eginbeharrak eta mandatuak egitera laguntzen dituzte egoiliarrek (hala nahi badute), eta guztiek daukate ate irristatzaileak komunetan.
- Lau egoitzatan ez dute uzten egoiliarrek freskagarri edo mokadutxo bat eskaini diezaien bisitariei. Ebakuntza osterako gelarik ez dute guk aztertu ditugun egoitzek.



MALAGA

Aztertu ditugun egoitzak: 7 (guztiak pribatuak)
Emaitza: ONARGARRIA
+ Egoitza guztiek uzten diete irretan bere kabuz moldatzen diren egoiliarrei. Egoitzetako batean mediku internista daukate, eta guk aztertu ditugunetan, oso gutxi eskaintzen dute aukera hori.
- Bostetan, ez digute utzi bainugelak ikusten. Ia erdiek ez daukate gela berezirik zauriak sendatzeko.



ZARAGOZA

Aztertu ditugun egoitzak: 7 (2 publiko eta 5 pribatu)
Emaitza: ONARGARRIA
+ Medikua astero-astero joaten da gaixok ikustera egoitza ia guztietara (beti egun berean); egoitza guztiek daukate lorategia, eta alarma ere bai logeletan.
- Batek ez dauka txirrinar bainugeletan, eta egoitza bakar batek ere ez dauka mediku zerbitzu espezializatuturik.

ere: garbitasuna, sukaldea, kudeaketa edo administrazioa. Arreta-laguntzako atalak, oro har, emaitza 'ona' lortu du, eta Araban 'oso ona'.

Hiru egoitzatetik bitan mediku bat izaten da une oroz (% 35ean, orotariko medikua izaten da), % 83k mediku kontsulta daukate, % 53tan erizaindegia daukate egoitzan bertan, % 80k fisioterapia eta errehabilitazio zerbitzua dute, lautatik hiruk ohe artikulatuak dituzte eta gehien-gehienek bainugela geriatrikoak daukate (publiko guztiek, pribatuen % 94k eta itunduen % 80k). Ebakuntza osterako gelak, aldiz, oso egoitza gutxi daukate, % 10ek soilik, eta berdin Alzheimerra edo zahartzaroko demenzia tratatzeko unitate espezializatuak ere. Batez beste, egoitzek arduradun bat daukate hiru egoiliarrentzat (erizaina, osasun-laguntzaile teknikoak, medikua eta laguntzailea), nahiz eta publikoek zertxobait portzentaje hobea duten (2,8 egoiliar, langile bakoitzeko), pribatuek baino (3,3 egoiliar, langile bakoitzeko). Gauez, larrialdi jakin batzuei erantzun behar izaten zaienean, langile bat izaten da 25 egoiliarrentzat (langile hori, hala ere, harremanetan egoten da zaintzaldia daukaten beste langileekin, eta larrialdietarako osasun zerbitzuekin). Murtziak dauka geriatra, pneumologo eta laguntza-profesional gehien; Araban psikiatra daukate egoitza batean, eta Nafarroan, dietista bat aritzen da egoitza batean. Oro har, hala ere, espezialista gehiago behar lirateke.

ETXETIK KANPO, BAINA ETXEAN

Orain dela lau urte egin genuen bezala, orain ere saiatu gara aztertzen egoiliarrak zein neurritaraino senti daitezkeen etxean bezala. Atal horretan emaitza 'ona' lortu dute egoitzek, baina 2005ean baino kaskarragoa, hala ere. Cadizek eta Zaragozak huts egin dute: 'hala-holako' emaitza lortu du Cadizek eta 'onargarria' Zaragozak (duela lau urte ez zen izan hain emaitza apalik). Batez bestearen gainetik geratu dira, berriz, A Coruña, Araba, Murtzia, Nafarroa eta Valentzia (emaitza 'oso ona' lortu dute). Egoitzarik gehienek, % 96k, atea zabalik izaten dituzte egoiliarrak irten eta sartu ibil daitezkeen, nahi duten bezala, eta ia guztiek aukera ematen diete euren altzari eta ondasunak egoitzara eramateko (seik ez beste guztiek). Egoitzen erdietan, egoiliarrek euren gelan bertan har ditzakete bisitariak, intimitate gehiago edukitzeko, eta % 70etan aukera dute egoiliarrarekin geratzeko, haiek osasunez larri badabilta (publikoetan, % 83tan egin liteke hori). Aztertu ditugun lau egoitzatetik hiruk kapera daukate edo erlijio zerbitzua.

PREZIOEK GORA EGIN DUTE

Egoitza guztiek ez dute prezio bera, guztiak ez baitira berdinak (batzuk publikoak dira, besteak pribatuak eta beste zenbait itunduak); zerbitzu eskaintza ere bakoitzak berea du, eta gela mota batetik bestera ere bada aldea (batentzako gelak 100 euro garestiagoak izaten dira

NOLA HAUTATU EGOITZA ON BAT?

KOKALEKUA: Familiakoen edo lagunaren bizilekutik hurbil dagoen egoitza hautatzea komeni da.

Irispideak asfaltatuak egon behar dute, eta aldapatxoak edo igogailuak eduki behar dituzte.

EGOITZA BARRUALDEA: Hesirik eta oztoporik ez dute eduki behar, barruko ibilbideetan heldulekuak eduki behar dituzte, eta ongi argiztatuta egon behar dute.

LOGELAK: Handiak izan behar dute, ongi haizeztatuak eta argiztatuak, eta, ahal dela, bainugela osatuarekin. Banakako armairuak eduki behar dituzte, eskuleku erosoekin, eta, horrez gain, aulkiak, gau-mahai tiraderadunak, dei-txirrinak eta abar.

SEGURTASUNA: Galdetu behar dugu nolako larrialdi sistemak dituzten, suteen aurkako tresneria baduten, alarmak badituzten.

LANGILEAK: behar adina langile eduki behar ditu, beharrezko titulu eta esperientziadunak. Medikua historial osoa eraman behar dugu, zer botika, dieta edo tratamendu hartzen ari garen jakin dezaten.

Bisitien ordutegia: Zabala eta malgua izan behar du.

DIETA: Asteko menu-aukerak askotarikoak izan behar du, eta mediku baten oniritzia eduki behar du.

ZERBITZUAK: Lanbide terapiak eskaini behar ditu, errehabilitazio edo gimnasioa, bainugela geriatriko lagunduak, mediku kontsult, zauriak sendatzeko gela eta jendearentzako areto zabalak. Komeni da jakitea zein zerbitzu sartzen diren hileko kuotan eta zein ez.

birentzakoak baino); gaixoaren osasun egoerak ere badu eragina tarifen, eta besteren menpekoa bada, hilean 300 euro gehiago ordaindu beharko ditu. Gaur egun, hilean 1.356 euro ordaintzen da, batez beste, egoitzan egotea, eta duela lau urte 1.252 euro ordaintzen zen (beraz, % 8 igo da, KPI baino gutxiago: % 9,4). Egoitza publikoetan zertxobait gutxiago ordaintzen da (1.174 euro, batez beste), pribatuetan baino (1.500 euro, batez beste), eta norbaitek ezingo balio aurre egite kuotari, egoitza publikoek aukera ematen dute kuotaren % 75 edo % 90 ordaintzekoa (kasu bakoitzaren arabera izaten da hori). Ez da erraza izaten, ordea, egoitza publiko edo itundu batean tokia eskuratzea, itxarrote zerrenda luzeak dituztelako batetik, eta baldintza sozio-ekonomiko jakin batzuk jartzen dituztelako bestetik (eskariak onartzeko, diru sarrera jakin batzuk eduki behar dira, muga batetik beherakoak).

HOBE PUBLIKOA EDO ITUNDUA

Tarifak merkeagoak izateaz gain, emaitzak ere hobek dituzte egoitza publiko eta itunduek. Egoitza publikoaren % 87k eta itunduen % 84k emaitza 'oso onak' edo 'onak' lortu dituzte, eta pribatuetan, berriz, % 73k atara dituzte halako emaitzak. Azterketa gaitzitu ez duten egoitza bakanak pribatuak eta itunduak izan dira (emaitza 'hala-holakoak' edo 'txarra' lortu dute); publikoetan, guztiek gaitzitu dute azterketa. Emaitza 'onargarria' lortu dutenak ere pribatuak dira gehienak (% 23); publikoak % 14 izan dira eta itunduak % 12. //



ADINEKOEN EGOITZEN AZKEN EMAITZA ETA BATEZ BESTEKO EMAITZA (CONSUMER EROSKI-REN arabera)

Probintziak	Azpiegiturak	Arreta-laguntza	Etxean bezala sentitzea	Segurtasuna	Irispideak	Garbitasuna	BATEZ BESTEKOAK
A Coruña	Onak	Hala-holakoak	Oso ona	Ona	Onargarriak	Onargarria	Onargarria
Araba	Oso onak	Oso ona	Oso ona	Bikaina	Onak	Oso ona	Oso ona
Alacant	Onak	Onargarria	Ona	Bikaina	Oso Onak	Ona	Ona
Asturias	Hala-holakoak	Onargarria	Ona	Oso ona	Onargarriak	Ona	Onargarria
Bartzelona	Onargarriak	Ona	Ona	Ona	Onargarriak	Onargarria	Onargarria
Bizkaia	Oso onak	Ona	Ona	Oso ona	Oso Onak	Ona	Oso ona
Burgos	Onak	Hala-holakoak	Ona	Oso ona	Onargarriak	Ona	Onargarria
Cadiz	Onargarriak	Onargarria	Hala-holakoak	Ona	Hala-holakoak	Hala-holakoak	Hala-holakoak
Gipuzkoa	Onak	Ona	Ona	Bikaina	Oso Onak	Ona	Ona
Granada	Onargarriak	Onargarria	Ona	Ona	Onak	Oso ona	Ona
Madril	Onak	Ona	Ona	Oso ona	Onargarriak	Onargarria	Ona
Malaga	Onargarriak	Ona	Ona	Ona	Hala-holakoak	Onargarria	Onargarria
Murtzia	Onak	Ona	Oso ona	Bikaina	Onak	Ona	Oso ona
Nafarroa	Oso onak	Onargarria	Oso ona	Oso ona	Oso Onak	Oso ona	Oso ona
Sevilla	Onargarriak	Ona	Ona	Ona	Onargarriak	Onargarria	Onargarria
Valentzia	Onak	Ona	Oso ona	Oso ona	Oso Onak	Ona	Ona
Valladolid	Onargarriak	Ona	Ona	Onargarria	Onak	Onargarria	Onargarria
Zaragoza	Onargarriak	Onargarria	Onargarria	Ona	Onak	Ona	Onargarria
BATEZ BESTEKOAK	Onak	Ona	Ona	Oso ona	Onak	Ona	Ona

(1) **Azpiegiturak eta zerbitzuak:** Egoitzen azpiegiturak eta zerbitzuak aztertu dituzte aldizkariaren teknikariek: zenbat gela dituzten, bainugelak eta logelak nola hornituta dauden, lorategirik eta paseatzeko eremurik baduten, eta beste zenbait zerbitzu ere eskaintzen dituzten: liburutegia, ordenagailu gela, kafetegia, ile-apaindegia... Horrez gain, egoitzara egin ditugun bisitetan zer-nolako informazioa eskaini duten ere aztertu dugu. (2) **Arreta-laguntza:** Azterketako atalik garrantzitsuenetakoa da hau. Kontuan hartu dugu zenbat zaintzaile dauden adineko pertsona bakoitzeko, nolako prestakuntza duten egoitzan ari diren osasun profesionalak, egoitzak mediku kontsultarik baduen edo ez, erizaindegirik baduen, zauriak sendatzeko gelarik baduen, mediku tratamendu espezifikotarako gunerik baduen... Horrez gain, itxarrote zerrendarik baduten ere galdetu diegu. (3) **Etxean bezala sentitzea:** Atal honetan aztertu dugu ea egoiliarrei uzten dieten familiakoen eta lagunaren bisitak jasotzen, ea bisitan datozenak egoitzan gera daitezkeen egoiliarri ongi ez badago, ea egoiliarri uzten dieten bere ondasunak eramaten eta giltzatuta gordetzen, edo ea aukera ematen dieten euren erlijio-ohiturekin jarraitzeko (kaperarik edo erlijio zerbitzurik baden egoitzan). (4) **Segurtasuna:** Aztertu dugu ea egoitzak badituen beharrezko segurtasun sistemak (larrialdi irteera, suteen aurkako sistemak, larrialdiko argiak...); horrez gain, jakin nahi izan dugu larrialdi planik ba ote duten, edo aurreko urtean sute bat itxuratzeko saiorik egin zuten. (5) **Irispideak:** Atal honetan, teknikariek begiratu dute ea aldapatxoak edo igogailurik baduten egoitzek barrura sartzeko edo solairu batetik bestera joateko. Horrez gain, jendea biltzeko aretoek, pasilloek, logelek eta bainugelek zer-nolako irispideak dituzten ere aztertu dute. (6) **Garbitasuna:** Azkenik, egoitza barruko gelak eta egoitza kanpoaldea garbi ote dauden aztertu dute, ongi zainduta ote dauden, eremu aski zabalak ote diren eta ongi argiztatuta dauden.